

Tolosako Energia Komunitatearen sorrera prozesua **1.bilera**.

Tolosako Kultur Etxean, **2025/10/07**

18:00tik, 19:45ra.

Bertaratutakoak

Herritarrak:

- 20 bizilagun

Teknikariak:

- Amaiur Mikeo (Tolosako energia teknikaria)
- Maria Ajuria (Farapi kooperatiba elkarte)
- Oier Etxebarria (Goienere)

Landutako gaiak

Ongi etorria

Andu Martinez de Rituerto Tolosako alkateak ongi-etorria egin zien bertaratutakoei. Prozesuaren helburua Energia Komunitate bat sortzea zela azaldu zuen, eta udalaren rola babestea eta laguntzea izango dela.

Kokapena

Farapiko Maria eta Goienerreko Oierrek hartu zuten hitza. Lehendabizi, Mariak prozesua azaldu zuen. Orain arteko saioak informatiboak eta edukiak lantzerantz bideratuta zeudela argitu zuen, eta hemendik aurrera, partaidetza prozesu bat bideratuko dela. Bertan, herritarrak izango dira protagonista. Horregatik, ardura politikoak dituzten herritarrak entzute rola izatera gonbidatu zituen, eta ezagutza teknikoak dituztenak, taldearen zerbitzura jartzera, ezagutzak orekatzeko etengabeko ahaleginak egin beharko baitira.

Oierrek Energia komunitateen eratze prozesua azaldu zuen (akta honekin batera doan dokumentazioan azaltzen da). Taldean herritarren aniztasuna bermatzeari ere garrantzia eman zion.

Partaideen aurkezpenak:

Norberak bere burua aurkeztu zuen. Partaide gehienak herritar moduan etorri ziren, eta Amaro elkarte bi ordezkari eta bi politikari ere egon ziren. Amaiur teknikariak ere prozesua jarraitzen egongo zela adierazi zuen. Hauek izan ziren prozesuan parte hartzeko aipatu ziren motibazio nagusiak:

- Alderdi sozial eta komunitarioa, komunitatea indartzea eta pobrezia energetikoa moduko gaiei kolektiboki erantzutea.
- Energiaren gaiarekiko interesa (ekoiztu eta kontsumitzeko era garbiak arakatzea). Kontsumitzen dugun energia bertan ekoiztea eta energia subiranotasuna.

- Norbere etxean, bizilagun eraikinean edo auzoan egon daitezkeen aukerak arakatzea.

EBK testuinguruan jarri eta ulertu

Zer dira Energia Komunitateak?

Partaide guztien ezagutzak uztartuta, eta Oierren azalpenez lagunduta, Energia komunitateak zer diren kokatzen hasi ginen. Hauek izan ziren ideia nagusiak (akta honi atxikitako dokumentuan daude azalpenak)

- Kolektibo bat saiatzen dena energia bideratzen. Energia garbiari lotuta.
- Ez da energia produzitzea bakarrik, energia kontsumitzeko moduan ere erreparatzen da.
- Onura soziala, ekonomikoak eta ingurumenekoak bilatzen ditu.
- Onura ekonomikoak: bertako baliabideekin bertako beharrei erantzutea.
- Onura sozialak: egoera zaurgarrian dauden pertsonak erakartzea; elkarrekin lan egitea ere onura soziala da.
- Ingurumen onurak: zerbait egiten den momentuan inpaktua dauka, ez kontsumitzeak du inpaktu gutxien. Kontsumoaren inguruan sentsibilizatzea.
- Europako zuzentarauak aipatzen du Energia Komunitateak irabazi asmorik gabekoak izan behar direla.
- Energia komunitatea gertukoa izan behar da.

Azalpenak eman ahala, zalantza batzuk sortu ziren herritarren partetik. Zalantza nagusia Energia Komunitateak eta autokontsumo partekatua bereiztea izan zen. Oierrek gai hau argitzeko azalpenak eman zituen:

- Autokontsumo partekatua: energia berriztagarrien ekoizpen partekatua da, non kontsumitzaile bat baino gehiagok energia partekatzen duten. Oraingoan, ekoizten den lekutik kontsumitzen den horretara, bi kilometroko muga dago.
- Energia komunitatea hori baino gehiago da. Autokontsumo partekatu proiektuak sustatu ditzake, baina baita herritarrekin sentsibilizazioa, energia aholkularitza, mugikortasun jasangarria...
- Gipuzkoako Foru Aldundiak Energia komunitateei zuzendutako diru-laguntzak izaten ditu eta behin Energia Komunitatea eratuta, hauei adi egotea komeni da.

Tolosako errealitatera etorrira, ondorengo gaiak adierazi zituzten herritarrek:

- Gaur egun bi sareetan egin beharko dira proiektuak: Tolargi eta Iberdrola. Erronka bat izango da.
- Udalarekin harremana mantendu beharko dugu.
- Kargadore elektrikoak inguruko herrietan daude eta Tolosan ez. Batzuek hori sustatu behar dela diote, eta beste batzuk aldiz, gasolindegia publikoak ez diren bezala, kotxe elektrikoentzat kargagailuak ere ez direla diru publikoan egin behar.

Hurrengo saioak prestatzeko, taldeak zer behar zuen galdetu zen, eta hauek izan ziren jasotako erantzunak:

- Beste Energia Komunitate batzuek egin dutena ezagutzea.
- Fakturak irakurtzen ikastea. (hurrengo saioan egingo da)
- Izaera juridikoaren inguruko gogoeta: Zergatik kooperatiba edo elkarte?
- Zer gehiago da komunitatea? Ez bada bakarrik autokontsumoa, zer da komunitate izaera? Nola landu?
- Alderdi soziala eta pobrezia energetikoaren gaia: familia zaurgarriak,... Oierrek erantzuten du Energia Komunitate batzuek partaide izateko erraztasunak jartzen dituztela eta pobrezia energetikoa azaltzeko saio bat ere egin daitekeela.
- Tolosan aukerak dituzten teilatuak ezagutzea, udalarekin elkarlana.

Hurrengo saioa

Saioan zehar entzundako beharrak kontuan hartuta, hurrengo saioan ondorengo bi gaietan zentratzea erabaki zen:

- Fakturak ulertzea. (horretarako partaide bakoitzak bere elektrizitate faktura bat ekarri dezake)
- Lan-taldeetan lanean hastea (teknikoa, komunikazio-komunitate eta administrazio-juridikoa).

Partaide gehiago etortzeko eta taldea anitzagoa izateko, deialdia irekitzeko aukera aipatu zen. Udaletik egingo da, baina herritarrek ere egitera gonbidatu ziren. Amaiurrek gehitu zuen merkatariekin lehen saio informatibo bat egingo dela.

Hurrengo saioa: **urriaren 23an, 18:00tan Oriaburuko eraikinean** izango da. Hemendik aurrera, saioak ostegunetan izango dira.

Komunikaziorako whatsapp talde bat osatzea ere adostu zen eta partaideek haien kontaktuak idatzi zituzten.